

Nafarkaria


• ostirala • 1998ko martxoaren 27a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Larraun • Bailarako emakumeen errezetak biltzen dituen liburu bat kalean
Josetxo Fernandez de Ortega • «Filmei musika jarritz gozatzen naiz»



‘Nafar-izkuntza’ orria, berean

Diario de Navarra egunkariak azken hogeita hamabi urteotan igandero kaleratzen duen Nafar-izkuntza orrialdeak arduradun berria du. Aurrez urte askotan kolaboratzaile izana da, eta orriak berean jarraituko duela dio.



Larraun • Larraungo emakumeak sukaldari

Errezeta ugari biltzen dituen liburu bat kaleratu du Mitxauseak

Aspaldikoak eta berriak. Gaziak eta gozoak. Zailak eta errazak. Era guztietakoak dira *On egin! Larraungo emakumeak sukaldari* liburuan bildu dituzten errezetak.



Errezeta moderno batzuk ere badira liburuan, baina gehienak antzinatik baserri giroan egin izan direnak dira: taloak, tripakiak eta beste.

JAGOBA MANTEROLA

i azko Emakumearen Egunerako bildutakoak, aurten karrikaratu ditu Mitxausea kultur etxeak.

Hirurogei errezeta bildu zituzten, guztira, iazko martxoaren 8an. Emakumeen Eguna zela eta, haiek egindako eskulanean erakusketa antolatū nahi zuen Mitxausea kultur etxeak; bordaketak, soinekoak... baina gauza batez ohartu ziren antolatzaileak: emakumeek lanik gehien sukaldean egiten dute, eta askok, behintzat, etxeko txoko horretan erakusten dute trebeziarik handiena. Horrenbestez, emakume larraundar guztiei beren errezetak eskaini zitzatela eskatu zitzaizkien. Arrakastatsua suertatu zen ideia, eta errezeta asko eta asko eraman zituzten Mitxauseneraino. Orain, errezeta horiek txukundu, eta liburuxka batean bildu dituzte guztiak.

Laurogei orrialde inguru ditu liburua, eta, arin irakurtzeko

modukoak izan daitezten, argazki ugari ere baditu. Errezeta guztiak gaztelaniaz eta euskaraz idatzirik daude, eta lau ataletan sailkatuak: lehenengo platerak, haragiak, arrainak eta postreak. Errezeta bakoitzaren hasieran, egilearen datuak ageri dira: izen-abizenak, adina, eta nongoa den.

Sukaldaritzako modernoaren adierazgarri batzuk ere badira, baina gehientsuenak aspaldiko errezetak dira, inguruko baserrietan tradizio handia duten jakiak. Esaterako, tripakiak, taloak... Era askotako errezetak daude, baina gehienak nahiko errazak dira. 1.000 pezetaren truke eskura daiteke liburua.

Emakumezkoek autore esku-biderik kobratu gabe eman dituzte errezetak. Baina errezeta horietaz gain, bada bestelakorik.

Duela hirurogei urteko sukaldaritzako liburu baten zati bat ere biltzen du liburuxka berriak. 87 urteko emakume batek zuen liburu hori etxean; orduan sukaldaritzako ikastaro bat egin omen zuen, eta han eman zituen. Benetan liburu bitxia, eta bitxiena, beharbada, bertan erabilitako letra eta esamoldeak. Horregatik, bitxia zelako, liburu zahar horren zati batzuk jarri dituzte *On egin! Larraungo emakumeak sukaldari* honen hasiera eta amaieran.

Azken zatian, hain zuzen ere, duela hirurogei urtetako festetako menua nolakoa zen azaltzen da. Lehenengo egunean, salda izaten zuten lehenengoz. Gero, haragi gixatua, eta, bukatzeko, flana. Bigarren egunean, berriz, saldaren ondoren oilaskoa izaten zen, eta, horren ostean, bizko-

txoa. Eta, hirugarren egunean, salda lehenik, eta gero zuri eta beltz izaten zen larraundarren mahaian. Postrea, arrosesnea.

Duela bi aste kaleratu du Mitxauseak liburuxka hau, eta mila pezetan jarri du salgai. Lekunberriko denda guztietara banatu dituzte liburua, eta orain arte, behintzat, oso harrera ona izan omen du larraundarren artean. Izan ere, sukaldean ez dakienak liburu honi esker ikasi ahal izango du, eta lehenik zertxobait dakienak bere errezeta bilduma handitu ahal izango du. Horrela, larraundar guztiak sukalde lanetan jartzeko aukera izango dute, eta ez, gehienetan gertatzen den moduan, emakumeek bakarrik.

Urko Aristi

Bera

Txirri, Mirri eta Txiribiton Urruñako ikastolaren alde

Urruñan eraikitzen ari diren ikastola berrirako dirua biltzeko hainbat emanaldi egiten ari dira telebistan hain ezagunak egin ziren hiru pailazoak, eta emanaldi horien artean dago igandean Berako Kultur Etxean egiten dutena. Urruñako ikastolako ikasleekin batera taularatuko dira arratsaldeko 17:00etan hiru pailazoak, Berako Labiaga Ikastolak antolatū duen ekitaldian. Urruñako eta Berako herriek aspalditik dituzte harremanak; izan ere, mugakideak baitira, eta elkarrekin zenbait kultur ekintza antolatū izan dituzte.

Txirri, Mirri eta Txiribiton -aurten 25 urte beteko dituzte pailazo gisa- betiko kantu ezagunak abesteaz gain, Urruñako haurrekin grabatu duten diskoan abestiko dituzte. *Han Urruñan etxe poxpola* diskoa karrikaratu berri dute, eta horren harira ere badator etziko emanaldia, diskoaren aurkezpena izanen dena. Emanaldiok guztiekin milioi bat pezeta (40.000 libera) bildu nahi dute ikastola eraikitzeko.

Sohütako ikastolaren bide berari ekin diote Urruñak bere ikastola izan dezan. Udalak emandako lurretan eraiki nahi da ikastola. Dirua lortzeko, 1.000 harri sinboliko jarri dituzte salgai, 10.000 pezetan bakoitza. Txirri, Mirri eta Txiribiton atera duten diskoarekin bildutakoa ere ikastola eraikitzeko izanen da.

Jon Abril

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



B ehin baino gehiagotan entzun izan dugu: ezkontza maitasunaren hilibia da. Esakerak, ezin uka, badu bere gatz eta piperra, egia handi bat gordetzeaz gain. Hala ere, burura datorrit segituan, sententziaren kontra altxatuko zirela senar-emazte makina bat aditu orduko, gezurra dela aldarrikatuz. Halako argudioak erabiliko zituzten, seguruenik: maitasunarentzat hobe dela maitaleen maitea hilez gero hilobi on batean gordetzea ezen maiteminduen gorpuztat inongo aterperik ez edukitzea baino. Horrela gauzak, ezkontza-hilobi eroso dela esan liteke, maitasuna bertan hotz geldi dadin, sukaldeko hozkailuan balego bezala; zerbeza, letxua eta yogurren artean.

Ezkontza *Deabruaren amaginarrebak* asmatua duela esaten duenik ere bada, bidenabar. Eta baita misogino horiek ere bete-betean jotzen dute dianaren

Ezkontza

erdian instituzio horren kontra tiroa egitean. Haien arabera, aztura sozial hori jendearen bizimoduaren izozteko balio duen zitalkeria ezin borobilagoa litzateke.

Areago, giza produktiorako asmakizun sazerdota dela gogorarazten digu Escriba de Balaguer *monsignoreak* bere *bidea*-ren 28. memelokerian: *Ezkontza tropako jendailarentzat da*. Ulertu behar da beraz, gorengo maiestateak -historian zehar apeta izan duten bakoitzean- txorta librean nahiago izan dutela berriak ezarritako arau zorrotzetatik pasatzea baino. *Matrimoniu*an, Estatuaren botere guztiak, beti lekuko.

Baina gauzak aski aldatu dira, dexente gainera, eta baita elkarbizitza buruzko ikuspuntuak ere. Aldaketak ez dira txirripaz gertatu, jakina: jende laikoak tinko egindako lanari esker baizik. Orain, badira bideak -Vaticanoz edo Epaitegiz harunta- bakoitzak nahi dituen

erara urratzekoak. Adorea besterik ez da behar, aise egiten ez den bidea da-eta.

Nolanahi den, ezkontzari muzin egiten dionak badi-tu beste murruntza batzuk pairatu bide beharrekoak. Adibidez, etxebizitza bat tartean dagoenean -okupa ez bazara, behintzat- paperak behar dira, eta dirua, noski; eta orduan, ezkontzagina, ez da ez Eliza ez Epaitegia izango, Bankua eta Etxebizitza Ministerioa baizik. Eta maileguez eta hipotekak ere hoztu egiten dute maiz maitaleen sua.

Niri dagokidanez, aitortu nahi dut: 18 urte badira epaitegiz ezkondu nintzela, norekin eta, deabruaren amaginarrebako batekin, anitz baititu, eta hemen nago, supazter eta hozkailuaren artean, tenperatura aldaketak gorputzari dakartzion gaitzak nozituz. Ezkondu edo ezkondu gabe, halakoxea da maitasuna: orain bero eta gero hotz. Oles, oles, ezkonberriak!



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Nafarroako Elefanteen Xendra

Oihu isil baten antzera, Nafarroak elefanteetan duen defizita gora doa etengabe. Arazo beldurgarri hau Elefantearen Aldeko Plataformako kideek aski ongi laburtzen dute hitz soil zein krudeletan: «Nafarroan urtero erabiltzen diren 700 elefanteetatik 650 edo, kanpoan erosi behar izaten ditugu». Dardara sortzen duten zenbakiak dira. «Iaz Nafarroan ez zen elefanterik jaio. Sesma eta Falzesko haztegi eta bordetan arrak besterik ez dira gelditzen». Elefantea, herria. «Europatik oso kuota eskaxak ematen dizkigute, nora goaz sei edo zazpi elefanterekin?»

Gutxienez 400 beharko genituzke... gutxienez! Horrexegatik da hain beharrezkoa Bardeetako Eraikuntza». Eraikuntza. Herri baten ametsa. «Bardeetan 2.500 elefante hazitzeko adina toki badago, eta horrela egiten ez bada jai dugu». Langabeziak, amesgaizto bat bezala, bere tokia hartu du herri askotan eta, nonbait, eroso sentitzen da elefante faltarekin. «Nik badut lur haundi bat nire herrian, hutsik orain... baina Nafarroako Xendra baliatuz elefantez beteko nuke!». Aberratasuna, aurrerapena, ez dira, ez, hitz txikiak, alboratu daitezkeen horietakoak. «Erregadioak ez du ez merkaturik ez inongo etorkizunik, Etorkizuna elefantea da, Bardeetako Eraikuntza eta Nafarroako Elefanteen Xendra. Ez dago beste irtenbiderik. Behar-beharrezkoa zaigu. Ekologistak babalorre batzuk besterik ez dira». Ekologistak. Zer diote aurrerapen honen guztiaren kontra aritzen diren taldetxoek?

Lurraren Aldeko Taldeko kide bati galdetzen diot: «Zer esango dizut ba... elefanteena txorrrada hutsa iruditzen zaigu». Argudiorik ez, beraz. «Beharren kontzeptua nahiko eztaba-dagarria iruditzen zaigu». Hara, orain filosofoak. Alternatibarik ba ote duten galdetzerakoan: «Alternatibarik? Dena kolokan jartzea! Merkaturia, defizita, etekinak... dena!». Poetak. Liburuetan idazteko hitzekin jango al du herriak? Hor dago kokka.

EGUNKARIArentzat, Bardeetako Eraikuntzatik, Xabier Larraburu. Arratsaldean. ●

Lizarra

Natura ikusgai Nafarroako Margolarien ikuspegitik

LIZARRAKO GUSTAVO DE MAEZTU museoan naturari buruzko margo erakusketak ikus daitezke apirilaren 12 bitartean. Bertan, eta natura hizpide hartuta, Nafarroako hamahiru margolarien bina obrei begira egon daitezke bat. Ama lurraren hainbat lekurekin amets egin dezake: irudi bukolikoak, elurrak estalitako mendiak, arto soroak betetako zelaiak, ibai ixilen joana, zuhaitzen mezu lasaia, kolore anitzeko animaliak, esnatzen ari diren loreak...

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Iruñeko eta Lizarrako Udalak antolatuta, Iruñeko Gotorlekutik pasa eta gero hurbildu da Lizarrara erakusketa. Erakusketa Nafarroako hamahiru margolarik eskainitako bina artelaneekin osatu dute Gustavo de Maeztu museoan arduradunek. Beraz, orotara 26 lan ikus daitezke. Erakusketan artistok parte hartu dute: Julio Pablo, Luis Garrido, Pedro Osés, Ignacio Muro, Pello Azketa, Alicia Irigoien, Fernando Iriarte, Juan M^a R. Sukilbide, Sagrario San Martín, Pedro Salaberri, Jose Miguel Corral Mari Jose Rekalde eta Juan Belzunegi. Pedro Salaberri margolaria eta erakusketaren arduradunaren hitzetan gauza aski argia da Nafarroako margolarien artean betidanik egon den begirunea. Haren ustez zaletasunak lekuko ugari utzi ditu eta askok erabili dute natura beren artelanak gauzatzeko. «Hainbat erakusketa egoteaz gain, herrialdeko margolarien artean

paisaia erreferentzia puntu da askotan, begitik hartutako erreferentzia. Gainera, askotan natura da obraren protagonista» azpimarratu du. Dena den, Salaberriren irudiko natura margotzea aitzaki hutsa da artistarentzat. «Natura adierazteko beste bide bat da. Agerian uzten ari gara nolakoak garen eta zein diren gure nahi eta sinesmenak. Naturaren bidez besteen aurrean garen bezelakoak azaltzen gara». Erakusketak egunero ikus daitezke: goizez, 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara. Igande eta jaiegunetan goizez bakarrik zabaltzen dute museoa.

→ Kristina Berasain

Leitza



• SORO

Mendialdeko abesbatzen topaketa

Lesaka, Bera, Etxarri-Aranatz, Altsasu, Lizarra, Igantzi eta Leitza abesbatzek parte hartuko dute bihar Leitza egiten den Mendialdeko Abesbatzen Topaketan. Leitza egiten den lehen aldia da. Hirurehun lagun inguru bilduko dira kontzertu bat eskaintzeko. Ekitaldia 19:00etan hasiko da, mezarekin, Mikel Deunaren elizan. Meza ospakizunaren ez dute zazpi abesbatzek kantatuko aurreko urteetan bezala. Biharkoan Leitza abesbatzak ariko dira lehen aldiz kantari: Asketa (1984an sortua) eta Jeiki, helduen abesbatza, Pontxito Irurtiaren gidaritzapean. Era berean, Juan Bautista Irazoki Asketako zuzendari eta Leitza parrokoak bakarka abestuko du. Meza ondotik beste taldeak ariko dira. Bakoitzak bina abesti kantatuko du. Kontzertua bukatutakoan, guztiak afaltzera joanen dira.

herri aldizkariak

Edume Elizondo

Goikola burdinola berritzen

Mailope aldizkariaren azken zenbakiak, besteak beste, Goikola burdinola zaharra ekarri du gogora: «Plazaola Patzuergo Turistikoaren eta Beteluko Udaletxearen ekimen berri bati esker, burdinola zaharraren itxura hobetuko da, aspaldian burdina nola egiten zen ikusi ahal izateko. Gaur egun larrez beterik eta erdi hautsita dagoen arren, burdinola zahar hau askoz okerrago egon izan da. Duela gutxi arte, Iruleguren maldan den Ziarrosin zelaitik pasatzerakoan ez zitekeen han azpian ezkuturik zegoena ere ikusi. Goikola burdinolako paretak zaharrak guztiz estaliak zeuden, larre eta basalandareak zirela eta. Gaur egun, burdinola izandako eraikin erdi eroria, denon bistan dago, baina lekua oso arriskutsua zegoenez, ezin zen hurbildu bertaraino. Paretak erdi erorian zeuden, zuloak badira nonahi... Hori horrela izanik, burdinola hobetzeko

obrak burutu dira egun hauetan. Horrela, inguruan bultzatu nahi den turismoak beste erakargarri berri bat izango du». Burdinola zaharraren hasierako gogoratu dituzte Mailopeko kideek erreportaiaren bidez: «Bainuetxearekin oso lotua dago burdinolaren historia. Juan Antonio Zabala izan zen sortzailea, gerora bainuetxea eraikiko zuen gizon bera. Gainera, behin burdin lana bukatuta, bainuetxea argiztatzeko beharrezkoa zen argindarra sortzen zuen, mende honen hasieran. Hasierako haiek oso garai oparoak izan ziren Goikolarentzat, baina gerora une latzak ere ezagutu zituen. Besteak beste, Frantziatik ekarritako burdinak arazo ugari sortu zizkion. Hango burdina hemen erraz sartzen zuten, baina hemengoak zailagoa zuen harako bidea, muga zergak zirela eta».

Egunkaria

KOMERTZIAL BAT

behar da PUBLIZITATE SALMENTAN aritzeko IRUÑERRIAN.

ESKAINIKO DA: - Lan kontratua.
- Soldata finkoa + komisioa.

BALORATUKO DA: - Eskarmentua antzeko lanetan.
- Eskualdean bizitzea eta autoa izatea.
- EGUNKARIA ezagutzea.


Interesatuok deitu Andoaingo egoitzara
943-300222 telefonora apirilaren 6a arte.

'Nafar izkuntza' orria, berean

Diario de Navarra-ko euskarazko orriaren arduradun berriak aurrekoen ildo bera jarraituko du

Diario de Navarra-ko euskarazko orriak arduradun berria du duela urte bat: Jose Mari San Sebastian **Latxaga** apaiza. Orriaren helburuaz, zentzuaz eta edukiaz hitz egin digu **Latxagak**. Aurrekoen lan ildoaldatu gabe, laguntzaile berriak sartu ditu lanean.

HOGEITA HAMABI URTE joan dira *Diario de Navarra* egunkaria *Euskal hizkuntzan orria* orrialde kaleratzen hasi zenetik. Euskal zale batzuen ekimenez hasitako izkribuak gorabehera asko eta aldaketa franko izan ditu geroztik. Nafarroan euskarak ibilbide luzea egin du, eta harekin batera orriaren zentzuaz, edukia eta izaera asko aldatu da. Gaur egun kaleratzen den *Nafar-izkuntza* orriak deus gutxi du ikusteko hasierakoarekin. Hainbeste urte ez dira alferrik joan, eta orriak hartutako bideak baditu aurrekariak.



Jose Mari San Sebastian, **Latxaga**, etxean. ANDER

1956a zen, euskararen aldeko mugimenduen hastapenak. Hizkuntzaren prestijioa hondoratu, hiztunen galera gero eta handiagoa zen, eta giroa itogarria eta zenbait arrikutsua euskaldunentzako. Nafarroako Diputazioan Euskara Sustatzeko elkarteak sortu zen, eta euskaraz egiten zuten haurtxoei sariak ematen hasi ziren bultzatzaileak herri herri. Diputazioan giroa aldekoa zela aprobetxatuz, lan horretan hasi ziren Pedro

Diez de Ultzurrun medikua eta Jose Maria Satrustegi euskaltzaina. Ekintza horrek helburu bakarra zuen: «Euskara zapaldua zegoen eta euskaldunak beldurra zekun. Psikologikoki nahi izan zen jendea beldur hori kendu», gogoratu du Satrustegik. Hori izan zen guztiaren hasiera. Hasiera horrek iraupena behar zuela eta, hamar urte geroago sortu zen *Principe de Viana* aldizkaria, 1966ko otsailan. Haren segidan etorri zen *Diario de Navarra*-ko *Euskal Hizkuntzan orria*. Jose Miguel Esparzak, orduan Diputazioan Turismo idazkari zebilen lesakarrak, sortu zuen urte bereko maiatzean. Euskara kaleratzen hasteko bidea sortu zen. Orduan hiru euskal zale hasi ziren orrialdean idazten: Pedro Diez de Ultzurrun, Aingeru Irigaray eta Jose Maria Satrustegi. 1970ean orriaren koordinatzaile lanetan hasi zen Diez de Ultzurrun. Lan ona egiten ari zen hirukotea, euskaraz han eta hemen gertatutakoak argitaratuz, albiste politiko eta guzti. Baina gauzak okertzen hasi zi-




NAFAR-IZK
Euskara Logroño'

Eun Idazlan
"Nafar-izkuntzan" orrialdean, aurreko orriaren berdinean, gaur egun idazten duen Jose Maria Satrustegi idazkariak, 1964ko urtean hasi ziren orrialdean idazten. Aurreko orriaren berdinean, gaur egun idazten duen Jose Maria Satrustegi idazkariak, 1964ko urtean hasi ziren orrialdean idazten. Aurreko orriaren berdinean, gaur egun idazten duen Jose Maria Satrustegi idazkariak, 1964ko urtean hasi ziren orrialdean idazten.

ren. Egunkariko zuzendaria euskararen aurka sekulakoak eta bi idazten hasi zen iritziz sailean. Euskarazko orriaren idazten zuten hirurak Jose Javier Uranga zuzendariarekin bildu ziren eta idazki nahiko gogor bat eman zioten berak esandakoen aurka. Zuzendariak ez zuen argitaratu nahi izan eta dimisioa aurkeztu zuten 1976an. «Gure presentzia ez zen egokia han zeuden batzuentzat. Aurrrera zihoan euskara, indarra hartzen ari zen. Herrian bide hori sortu genuen, eta batzuek 'gehiegia' da' esan eta guk egindakoa trabatu nahi izan zuten», azaldu du Satrustegik. Orduan lanean hasitakoetatik bizi den bakarra. Ondoren Marcelino Garde jarri zuten *Principe de Viana* aldizkari buru zela aipatu orrialdearen arduradun. Batak hondoa jo zuen, eta besteak, berriz, beste arduradun batzuekin, oraindik jarraitzen du. Garde 1990ean utzi zuen ardura, eta haren atzetik etorri ziren Jesus Gaztañaga eta Manu Oñatibia. Ustekabean hil zen Oñatibia, eta Jose Mari San Sebastian **Latxaga**-k hartu zuen gidaritza, duela urtebete. Igandero kaleratzen den orrialde honek Maria-no izeta idazle batzandarra eta Bixente Lategi, Jose Maria Arzalluz eta Latxaga apaiz gipuzkoarrak ditu idazle.

«Nafarroa euskal harrobi bezala azaldu»
Urte bat bete da Jose Mari San Sebastian **Latxaga** egin zutela *Nafar izkuntza* orrialdeko buru. **Latxagak** aurrekoek egindako bidea jarraitu du, eta bere helburua Nafarroa euskal harrobi moduan azaltzea dela dio. **Latxagak** ez du hitz egin nahi Diez de Ultzurrunek orrialdea zuzentzen zuten garaian euskararak izandako erasoaz. Bere orduan kanpoan zen, hamabost urte eman baitzituen Estatu Batuetan. «Ez dakizkidan gauzak ez ditut esan nahi», dio.

Latxaga:
«Hizkuntza bat daukagula uste dutenak gaizki jota doaz. Euskaltzaindiak egiten duena euskara mugatzea da, eta euskara erromantze bat bihurtu»



Euskararen erabilera eta dirulaguntzak

Gaiak eta esparrua zabaltzeko asmoa badu ere, **Latxagak** ez ditu orrialdearen itxura eta euskara aldatuko. Arduradunaren irudiko, inork ez die zertan esanik nola idatzi behar duten. «Anitzak izan nahi dugu, pluralistak. Hizkuntz politikak Euskaltzaindiaren arauak jarraitzeko gomendatu izan du, baina egunkariak erantzun die pluralistak izan nahi dugula. Helburu bat eman badidate hori izan da eta nik betekodut, azpimarratu du. Nafarroako Gobernutik milioi erdiko dirulaguntza jasoz zuten *Diario de Navarra*-k joan den urteko deialdian, euskarazko orria egiteagatik. Hizkuntz Politikak Euskaltzaindiaren arauak jarraitzeko gomendatua egiten badu ere, arduradunak ez ditu inoliz aintzat hartu. «Ez dut jendearekin eztabaidan hasi nahi. Emango nikizuke besteetan ikusitako zatiak eta erdara da. Joskera ez da euskalduna. Har ezazu Mariano izetaren euskara eta izango duzu Baztago eta Nafarroako euskara aberatsena. Zerbait aldatu behar al diogu horri?, erantzuten du haserre. **Latxagak** dio euren helburua «euskara egokia» egitea dela. «Helburua euskara egokia egitea da, baina bakoitzak berea egin dezan. Har itzazu beste aldeko horiek: erdara da, lotsa ematen dizu zer egiten den ikusteak. Hori al da euskara bihurtzea? Telesbata zer euskara, zenbat hitz erdaraz euskaraz ditugunak. Ni naizen bitartean hori izanen da. Geroa geroak esango du», gaineratu du.

Jose Mari San Sebastian 'Latxaga' iruñeko artzapezpikua eta Tuterako apezpikua

«'Diario de Navarra'-k euskararen aurka esaten ditueni ez erantzutea erabaki nuen»

JOSE MARI SAN SEBASTIAN **LATXAGA** gipuzkoarra da, eta Donostian bizi da egun. Aita Berakoa eta ama donostiarra, aitaren baserrian ikasi omen zuen euskara. Parisko Sorbona unibertsitatean eta New York Columbian ikasia, Teologia, Antropologia eta Linguistikan doktore da. Aterrirra joan baino lehen Orexan egon zen apaiz. Donostiako arrebaren etxean hartu gaitu **Latxagak**. Hitz jario pausatukoa, luze hitz egin du *Diario de Navarra*-n egiten duenaz, euskaraz eta Nafarroaz. **■ Zein da zuk zuzentzen duzun orriaren helburua?**

Orrialdea ostikoaren antzekoa da baina ostikoa emateko gogorik gabe. Orri hori begietatik sartzen da. Gehienek ikusten dute orri hori euskaraz dela, nahiz eta *Diario de Navarra* hartzen duten gehienek euskara ez ulertu. Orri horrek egin duen lan handiena hori da. **■ Zergatik ez diezue *Diario de Navarra*-k euskararen aurka idatzitako erantzuten?** Ez naiz sartzen. Ez dut erantzunik ematen. Gauzak diren bezala uztea erabaki nuen. Euskara aurrera joatea interesatzen zait. Euskaldunekin behin ere muturrekoa ez hastea. Euskaldunak erdibitza da

guztirik errazena mundu honetan, eta ez dut urrats hori eman nahi. Orduan, erabaki hori hartua daukat. Euskaldunekin ahal den guztietan batu eta aurrera joan. Eta horixe da nire politika. *Diario de Navarra* aspaldiko periodiko bat da Nafarroan. Bere tradizioa dauka eta guk ez daukagu zer sarturik. Baina euskaraz uzten digutela orrialde hori egiten, orrialde hori atera behar dugu euskararen onerako. **■ Euskaratuaren aurka azaldu zara. Zergatik jarraera hori?** Beste mundu batean sartzen gara. Orrialde horretan badira h-a erabiltzen dutenak eta ontzaz ematen ditugu: izeta, Etxarren... Norbait lanean hastea nahi dudanean ez dut h-a edo ez h-a ikusten, nahi dudana da euskaraz egitea, besterik ez. Hala ere, nik ez dut jartzen. Euskararen sustraia gero eta gehiago ikasten ari naiz, eta gero eta gehiago egina nago euskara ez dela hizkuntza bat. Hizkuntza bat daukagula uste dutenak gaizki jota doaz. Euskara da hizkuntzen sendi bat adar askorekin. Euskalkietan dituzten diete dialektuak eta hori buria da. Gipuzkoako euskarari dialektu esatea hizkuntza bat denean... Guk ez dugu eskubiderik «hau euskara da eta hori ez» esateko. Dena eus-

kara da. Euskaraz ematen duena euskara mugatzea da eta euskara erromantze bat bihurtu, latinetik edo erdaratik morroi agertzen dena. **■ Ez zaizu iruditzen orrialde euskararen errealitatekin kanpo dagoela, bizkara ematen diola?** Ez dut eztabaidan hasi nahi. Ni zaharra naiz eta banoa gero eta gehiago, eta oso gauza bereziak irakurtzen ditut. Lan batzuk badira onak; Jose Maria Satrustegik dioena gustuko dut. Komunikabideak egiten duten lana oso txarra iruditzen zait. Sartzen dute hanka barre-

lano eta ikusi beharko dugu zuzendu hori dena. Ez dute egokia jarraitzen. Etsia nago jartzen. Ikastoletan ere gertatu da. Bere hartu duten erabakia, etxeko euskara bat, etxekoak ez bat. Gaztetxoak zaharrei esazuzena ez da euskara. Hori da esaten duzuna. Orduan, zer dute? Euskara hil. **■ Baina zure hasierako helburua Nafarroa ikastolez jostea dela esan duzu. Nola ulertzen du hori?** Baina ni ez nago ikastoletan ematen duen heziketarekin, haserok beharko lukete eman. Ikastolek badauka gauza bat ona, erretirik sortu dela eta herriarekin dela. Baina herriatik sortu bada erretirik bat egin behar du lan.

■ Beraz, euskal komunikabideak eta ikastolak bide okerretik doaz? Nik ere badut nire hizkuntz politika. Badut bidea, *Diario de Navarra* ale asko direlako eta badakidalako. Jende askok, nahiz marmarrean, irakurtzen dutela. Denbora gehiago edukiko banu, herri aldizkariak agertuko nituzke, hortxe dagoelako etorkizuna. **■ *Diario de Navarra*-k beti aldarrikatu du oso «nafarra» dela. Nola hainbeste gipuzkoar lanean?** Ahalegintzen naiz nafarrak sartzen. Nire taldean gehienak nafarrak dira. Ez da kanpotik egindako lana. Ez naiz Nafarroan bizi baina beti Nafarroan nago eta nafarrek egiten duten lana bezain ona edo hobea egiten dut. Gutxi ezagutzen

dute nafarroa nik ezagutzen dudana bezala, etxerik ez eta herririk herri. Pentsatzen dut herri mailako gizona naizela eta hartzen ditut herri mailako euskal iturrien berri-emaleak. Gure gizarteko kultura ez dute bakarrik oso jakintsuek egiten, beti egiten dute. Baina herri-maila horretan dauden zenbat gizon-emakumek ere egiten dute kultura. Horiek azalazteak garrantzi handiko lana da. Oso garrantzitsua da, betiere euskaraz baldin bada.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Jon Andoni Irazustaren deskarguan

«*Joanixio eta Bizitza garratza da elaberrien egilea, merezi baino ezezagunagoa gertatu ohi da gurean; sortu zeneko mendeurrena bete zenean ere, Euskaltzaindiak ez zion omenaldi berezirik eskeini*»



Don Andoni Irazusta Muñoa Tolosan sortu zen 1884.eko ekainaren 9an, eta bere bigarren elaberriaren azken edizioan -klasikoak sailaren 53 zenbakia- Amondarain eta Izagurre prestatzaleek aski argi zioten: «Egileak izan den baino ezezagunagoa izatea merezi zuen lehen eta orain. Euskaltzaindiak berak ez zion omenaldirik eskeini sortu zeneko mendeurrena bete zenean». Halaz guztiz, zertan harritu ordea?

Zuzenbidea Deustuan eta Madrilen egin ostean, sorterrian ezarri zen abokatu. Politikan sarturik -Tolosako alkatea izandakoa zen aitak berak isiotu ziokeen zaletasuna bestalde- Gipuzkoako ahaldu aukeratua izan zen Madrilgo kortetarako EAJrekin, 1932., 1934. eta 1936. urteetan, Lasarte, Pika-bea eta Irujorekin batera. Gerrateaz geroztik, aitzitik, hego Ameriketara jo behar izan zuen, Paristik: Bogotá, Puerto Rico, Buenos Aires eta Córdoba, eta, azkenik, Lima izan zituen helmuga abegitsuak. Honezkerro zaharturik, apez pasiotarra sartu zen 1951.ean, Moyobamba aldeko Tarapotora misiolari bidali zutelarik. Gutxi irauan zitzaion baina pasio berria, eta Liman zendu zen 1952.eko martxoaren 9an.

Idazleaz zenez bezanbanean, Euskalerriko zenbait aldizkari-tako nahiz egunkaritako kolaboratzailea izan zen, *El Día*-n batik bat, betiere *Egoizea* ezizenez, eta 1932.ean Labaien eta López-Mendizabalekin batera *Antzerti* aldizkaria sortu zuen, baita zuzendu ere, argitalpenak iraun bitartean behinik behin, hau da, 1935.era arte. Honen abaraoan *Losintxak* atera zuen, *Hellos* aldizkariaren sortzailea zen Gregorio Martínez Sierra modernistak gazteleraz egin *Madrigal* antzeziaren itzulpena. Liburu gisa argitara eman zituen lehenbiziko lanen artean, aipagarriak lirateke bere ogibidearekin lotuta ondu zituenak: *Euzko-aldunen Alkartea* -Bilbo, 1935- euskal langileei zer-nolako eskubi-

deak zor zitzaizkien aldarrikagai Madrilgo gorteetan ogutzi hitzaldia, edota erderaz ere tajutu *Ley de arrendamientos rústicos* -ber tokian eta urtean agertutakoa-, funtsean ere hitzaldi baten testua.

Jada ameriketaraturik zegoela, *Joanixio* elaberria eman zuen argitara Buenos Airesko Ekinekoen etxean, 1946.ean, Villasantek goraki aintzatu zuena losentxari: «*Joanixio* es uno de los libros más amenos, naturales y auténticos que se han escrito en vascuence; se lee con suma facilidad, interés y agrado». Honen azken edizioaren sarrreran -Klasikoak bildumaren 46 zenbakia- Gotzon Garatek euskaraz eginiko lehenbiziko elaberri errealistatza jo izan du Irazustarena, aurretik eginikoen artean bat ere ez bailegoke *Joanixio*-ren ezaugarriak bete-betean bere egiten dituenik: «Irazustak badaki Euskalerririko Ameriketako gauzak ikusten eta ikusitakoa paperean jartzen», areago: «*Joanixio*-rekin hasten da elaberri errealista Euskalerririko eta 1957. arteko elaberrietan onenetakoa da, hoberena ez bada, geroko idazle askok ere ez zuten inolaz ere tolosar honek ezarritako marka ondu». Irazustak sortu pertsonaiari «1946-ra arte agertu ziren elaberrietan pertsonaiarik osoena, egiazkoena eta borobilena» deritzo Garatek. Irazustari berari ere, ez zitzaion atzendu Garatek geroxeago esanen zuena, eta elaberriaren hasmenta orriotan apal baina araztatzatzen zigun: «Gizagaletan geiena irakurtzen dana, izkuntza ezagunenetan, esango nuke edestizun edo novela dala. Euzkotarren artean ez da ala gertatzen, euskaraz

idatzitako edestizunak oso gutxi ditugulako (...) Uts ortan gaude. Uts ortatik ateratzeko norbaitek asiera eman bear, bestela beti utsean egongo gifake. Ta alaxe asi nai nuke nere au ditugun pixkeri bat geiago erantsitzeko».

Bigarren elaberria lau urte beranduxeago atera zuen aurrekoaren toki bertsuan. *Bizitza garratza da*, ordea, ez zaio Garateri lehenbizikoa bezain ona iduritzen: «eskaxagoa da, bi protagonistak dituelako, euskara lardatsago erabili eta melodrama gehiago sartzen duelako». Eta, berriz ere, Garatek baieztatutakoa, aurretik ere Irazustak berak onartu zuen: «Neronek dakit ongiena idazle kaxkarra naizela. *Joanixio* idatzi nunean, nere us-tez naiko egin nun: lezatekenai, ni baño askoz obeak diranai, jarraitzeko bidea iriki. Ez nun beste bat egiteko asmorik». Alabaina, bada gauza bat Irazusta zirikatu eta mindu ere egin zuena. *Joanixio* argitaratu ta gutxira, berak erabilitako euskararekin nahiko ados ez zegoen irakurle batek igorri gutun bat jaso zuen, elaberrian topatu hainbat huts eta akats zuzentze bide eskeiniz. Ez zuen gogo onez hartu Irazustak, eta bigarren elaberria horri ihardespina baino ez litzateke. Irazustari kezkarriago zitzaion irakurleen kopurua erabilitako euskararen eitea bera baino, eta euskara jaso eta zaindu baten sustagarri irakurleak eta irakurtzeko ohiturak omen zitzaizkion garrantzitsuen: «lenengo, beia bear da, euskara zabaltea, eta orduan izango da apaintzeko garaia, ordun zintzarria ipintzekoa». Euskararen inguruan zituen burutapenak *Euzko Gogoa*-n azaleratu zituen 1950.eko bi artikuluetan. *Oñarrik*, eta *Beti bat*. Aldizkari berean Andima Ibiñagabeitiak ez zuen Irazustaren euskara gores-teko arazorik izan: «Izkera argiaren eta ugariaren yabe zan idazlea. Ori dala ta aren idaztiak neke gabe irakurri ditezke, naizta erri euskara utsa besterik yakin ez».

e t o r r i a h a l e a n

Patziku Perurena

Martingala zaharra

Bada periodiko bat kasik egunero etxera sartzen zaidana, eta aldian behin esaldi filoxofiko bat leitzen diot.

«Horixe du merezi duen bakarra» esan nion behin Lurdesi. Eta geroztik, moxtu eta jaso egiten dizkit. Matxista baitut nik andrea, eta serbitzala oso. Aurreko batean hala zekarren, alde aldera, espainolez: «Pentsatzen duguna esateak, hizpide biziagoa ematen du, dakiguna erreizitateak baino».

Bai horixe. Pentsabideak mozteko sistimarik zaharrena, erritmoa, asmatu zuten maisuek ongi jakin behar dute horren berri. Giza domatzaile-rik disimulatuen eta eraginkorrena baita erritmoa, nahinola-ko erritmo xoragarria. Horrek xoratzen du, endemas jende xoxoa: seminarioan oratoria ikasi duen apezkondoak, hitzak pisatzen ikasi duen hiztun dotore doktoareak, multiplikatze-ko tabla ikasteko erak, erro-sarioa edo aitagurea erreztatze-koak, brasileña aspertu baten gerriak, deusik ez dion bertsoa entzuteak, saunka politikoen doinuak, iraultzaile kobardeak taldera ordu egiten duen protesta enfatikoak, instruzio militar xuxenak.

Erritmoa duzu alienatzaile-rik boteretsuena, eta inperioak, txiki edo haundi, atsegin eman bezala, sartzen dizu belarri-zulotik oharkabea. Martingalarik zaharrenetako horrek giza nortasuna desegin eta ezerez bihurtzeko duen indar ikaragarria gaur egungo gaztedian ikusten da ederki. Soldaduskarri ez, ongi, baina gero, *dumb, dumb, dumb!* erritmo militarra dizu irrikatzen bere bizimodu zibil libreenik ustekoan. Hizketa bizia, pentsapidea, sobran dizu. Horratx: zibilizazioak asmatutako martingalarik degeneratzaileenak gailurra jo duela erakusten ari zaigu gaztedia, eta inork ez du ohartu nahi. Eta ez badiote erritmorik ematen, galdu egiten da, deses-peratu, lo hartu nahi luken

haur ernegatua bezala, eta lokanta, betibateko leloa, dizu eskatzen dundurika.

Baduk entsegu eder baterako gaia Eduard:

«la profundidad del ritmo y del sueño en la juventud vasca». Eta Orixeren pasarte zoragarri bat datorrit gogora. *Olentzaroz* amona xaharraren ipuin xora-garriak sutondoan aditu, eta ohera doa baserriko familia:

Anka sartu orduko loak ditu artu. Ez die elur malutak loa debekatu. Ardiak joalea auznarka asi baitu, arek tantaka loa gorputzean sartu.

Edertasun poetikoaz gain, noski, azken ukitu horrek, hotsaren betibatekoak, mundua mundu denetik, gure zentzuak loxorrotzeko eta gizaera libreak ukatzeko izandu duen eragin izugarria erakusten du. Inork haratago jo nahiko balu, gal honen gaineko burutaziorik argienak fisikaz honatago leituak ditut:

«Errimaren eragin eta ondorioak hagitz azkarrak eta ahaltsuak dira. Denborari hain hertsiki loturik dugu adimena non, hein batez, adimena denbora dela erran baikenezake. Adimena tarteka erreplikaten den eta somatzen dugun edozein hotsi baietza ematera eta segitzera bulkatzen gaitu, hari koro edo konpartsa egitera. Eta tar-teak berdinago gu bulkatzena-go; hau gure gogora ala gure damuz. Diotena diotela, errimatu den ber, onarpen suerte bat sortzen zaigu. Maina zahar bat entzulegoaren baietza sortzeko. Hau, aunitzetan, entzuten dena ulertu gabe gertatzen da».

Horra zergatik, esate bateko, bertsolaritzak gure artean duen onespene xoxoa. *Zozoenak, halare, gure pentsabidea bertsoaren erritmoan bizkortu nahi duten kultto berri hortek. Berritot, erreplika joaz: «Pentsatzen duguna esateak, hizpide biziago ematen du, dakiguna erre-zitateak baino». Utikan! gero eta lo zuriago gorputzean sartu nahi diguten kamello berri guziak.*

Ziria

• Motxorrosolo •


Kukua

A DITU ALA EZ, ESKAS IBILTZERA ZIGORTURIK. ESERLEKUAN DIRENEN PUSKA txiki bat jasota kontent. Ustelkeria orenen aitziz garaille atera zirenen soa arras lausotua ageri zaigu. Ergelak ala inozoarena egiten jaiok. Gainerat, askazaleen multzoa handitua, egiazki ez denaren kontra aritzea moda baino bizibidea den honetan, denendako ogirik ez omen dago, ganbelak mukurua zirenen garaia igaroak dira. Siemens-eko intxaurrek urrutit dira. Iazkoan kukuak makur jo zigan. Igande honetan besteren bat, espetxean, txirula jotzen saiatuko da.

Jose txo Fernandez de Ortega Musikagilea

«Zoragarria da zuzenekoak

publikoarekin ematen dizun kontaktua»



MIKEL SAIZ

soslaia

Jose txo Fernandez de Ortega Donostian sortu zen, orain 32 urte. Musika sortzea ez ezik, entzutea ere gogoko du oso: 80ko hamarkadako pop britaniarra, rock sinfonikoa edo zinemarako Jon Whilliamsek egiten duena, besteak beste. Baditu belarritik sartzen ez zaizkion erritmoak ere: salsa gorroto du, *bakalaoa* ez du entzun ere egiten, eta *dance*-a bitxia iruditzen zaio.

Zuzenbidea ikasi du, baina ez du horretan lan egiten. Bost urte egin arte euskaraz bakarrik mintzatu bazen ere, egun ulertu besterik ez du egiten. Oso maite omen du, baina ez dago ados «arrazoi politikoak direla eta ezartzen ari den inposaketarekin». «Maite dut nire hizkuntza delako eta gustatzen zaidalako, besterik gabe», dio.

Donostiako Kontserbatorioan egin zituen musika ikasketak. Rikardo Requejo izan zuen azken irakaslea. Diru premia duenez Basa Kabi taldean jotzen du. Filmei musika jartzea da benetan atsegin duena: «Zerbait ezberdina esateko aukera bakarra da. Ikuslea entzutera dator, eta hori zoragarria da».

Erreferentzia kulturalengatik 20ko hamarkadara itzuli behar duzu.

■ Eta gutxien?

Joan den ostiralean egin nuen Buster Keatonen *Siete ocasiones*-ek. Hain da ona, erritmoa erraz hartzen diozu. Ez zitzaidan batera kostatu egitea. Horrek ez du esan nahi erraza denik, irudia eta musika uztartzea beti baita zaila. Baina behin aurretik 40-50 eginak dituzunean ez da gauza bera. Dena den, oraindik asko dut ikasteko.

■ **Artelan oro bezala, zinema ez dago atzera begira. Egun teknologiaz lagundurik estudio batean efekturik harrigarrienak lor daitezke. Badu zentzurik zuen lanak?**

Gero eta gehiago. Baliteke garai bateko lanbidearen berreskurapena delako izatea, edo besterik gabe erakargarria delako. Hori bai, egun orduan baino estatus hobea dugu. Garai bateko

film mutueta piano joleak ez du zerikusirik ni naizenarekin.

■ **Donostian eta Iruñean jotzen duzu. Zein ikusle duzu nahia-go?**

Donostiakoa naizelako edo, kritikatuagoa, behatuagoa eta ezagutuagoa sentitzen naiz han. Iruñean, hasiera-hasieratik oso harrera ona izan nuen. Hona askoz gusturago etortzen naiz jotzera.

■ **Zer nahiago duzu, musika sortu edo jo?**

Sortzen oso gustura aritzen naiz. Baina zoragarria da zuzeneko publikoarekin ematen dizun kontaktua ere.

■ **Film luzeen musika bandak eta telebista iragarkietako doinuak egin dituzu. Zer asmo duzu etorkizunean?**

Proiektuak baditut. Baditut gauzak eginak, baina ez ditut oraindik erakutsi. Klasikoetan oinarritzen naiz: Beethoven eta Rakhmaninov, Bach, Somber edo Malher. Oso gustuko ditut. Iturri ezberdinetatik edaten saiatzen naiz. Soinu bandak egitea da nire asmoa.

→ Irene Arrizurieta

Pelikula mutuei pianoaren erritmoa jartzen die Jose txo Fernandez de Ortega musikagileak. Asteartean Nafarroako Ateneoak antolatzen duen zikloan aritu zen, eta gaur 19:00etan *Octubre* pelikula lagunduko du Opu-seko Belagua Ikastetxe Nagusian. Sortzea gustatzen bazaio ere, zuzenean publikoarekin aritzeak erakartzen du bereziki.

LAU URTETATIK JOTZEN DU PIANOA Jose txok. Hitz jario handikoa, musikaz eta haren filosofiaz mintzatzen orduak eta orduak egiten lituzte. Gurean ere aritu zen suelto.

■ **Nola hasi zinen pelikula mutuek pianoaren doinuarekin laguntzen?**

Ustekabean hasi nintzen, kasualitatez. Duela bost urte eskaini zidaten Donostiako Principal antzokian Nosferatu zikloko pelikula bat. Gero Donostiako Zinemaldia izan zen. Eta geroztik honetan nabil lanean. Hasieran beldur nintzen baina lan berria eginen ausartu nintzen. Askok gustatu zitzaidan esperientzia hura, eta geroztik deitu egin naute. Gero Iruñera ere hasi nintzen etortzen. Nire lana hobetuz joan naiz, eta gaur arte.

■ **Nola egiten duzu lan?**

Lehenik eta behin, filma ikusten dut, behin baino gehiagotan, eta ondoren egituratu egiten dut. Erritmoa ezartzen diot, beti ere kontuan hartuz zein estilotakoa den: erromantikoa, akzioduna... Pelikula pasatzen den unean bertan soinu banda bat jotzea bezala da lan hau.

■ **Nola uztartzen duzu musika?**

Pelikularen arabera da hori. Filmaren musika egiterakoan beti pentsatu behar duzu ikusleari zuzendua doala. Ezin duzu inor aspertu, baina zure esperientzia oinarritzen zara. Ohikoena da nik sortzea musika eta gero, pelikularen arabera, garatzea. Beste batzuetan gustatzen zaizkidan musika doinuen elementuak erabiltzen ditut.

■ **Nafarroako Ateneoak antola-**

tu duen Zinema Zinemaren Barruan zikloko pelikula mutuen doinuak egiten dituzu. Hainbat zuzendariren lanak egitea egokitu zaizu. Buster Keatonenak edo King Vidorena. Alde handia dago batetik bestera?

Joan de astekoek erraztasun bat zuten, hau da, Buster Keatonenak ziren. Keaton talentu bat da eta oso erraza da haren pelikula bat pianoarekin laguntzea. Badira beste batzuk non hariari heletzea zailagoa den. Mantsoegiak dira edo errealdadore arraroren batek egin ditut. Pelikularen arabera da. Barregarria bada errazagoa da, horretara ohituak gaudelako. Txikitatik zinema komikoa ikustera ohitu gaituzte. Badira erabiltzeko musika elementu errazak, baina beste ba-

tzuetan sortu egin behar duzu guztia. Mugimenduak laguntzen dizunean, berriz, ez duzu zertan sortu, eta horregatik da errazagoa.

■ **Zein filmek eman dizu lan gehien?**

S.M. Eisensteinen *Octubre*-k. Duela hiru urte, hilabete oso batez aritu nintzen filmaren musika egokitze lanean, eta orain berriro ukituak ematen ari gara. Gaur emango dugu Belagua Ikastetxe Nagusian, 19:00etan. Erreportaia bat denez, elementuak egituratzek ematen du lana. Fermin Garcia Amigotek soinu banda ordenadorean sartzen lagundu dit. Gainontzeko pelikuletan pianoa besterik ez dut jotzen, baina gaurkoa ezberdina da. Orkestra batentzat aurrekonturik ez dagoenez, nik dudak ideia grabatu dugu eta pianoa jo bitartean zuzenean emango dugu. Pianoa eta orkestra ariko balira bezala entzuten da. Beste behin tokatu zitzaidan zinema ziklo japoniar bat laguntzea. Koldo Mitxelena kultur gunera joan nintzen zerbait aurkitzera zertan oinarritu izateko. Ez da mendealdeko zinema, eta zaila da musika aukeratzea.

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Begira jefe adiskide batek argazki bat bidali dit!! Interneten berarekin ari naiz Estatu Batuetako ordenagailu baten bitartez...



Aurretik Pariseko ordenagailu batean kontaktatu dugu eta gero iparamerikako kanal batera joan gara eta begira!! ARGAZKIA!! banoa leihora!!!



Nafar Kronika

Fermin Erbiti

Sekretu eta misterioak

MISIOLARI EDO MOJAREN BAT AFRIKAKO edozein parajetan bahitu dutela entzun orduko, nafarrok bada-kigu hemengoa izanen dela. Iragarpena estatistika lege guztien aurkakoa izanagatik, azken urteotako misiolari eta mojen bahiketek ongi frogatzen dute Afrikan ez dagoela nafarrik gabeko herririk.

Hori bezalako beste misterio batzuk ere argitzen saiatu beharko genuke. Esate baterako, Diputazioak kultur ekitaldietarako dirulaguntzak banatzeko erabiltzen duen irizpidea. Izan ere, lehen aldiz nafar baten pelikula Hollywooderaino heldu eta horretan hemengo administrazioak meriturik ez du.

Kultur ekitaldietarako dirulaguntza lortzea zaila da, batez ere agintarien lagun ez direnendako. Eta ez pentsa administrazio buruek idazle, antzezle edo zinema zuzendariekin denbora galtzen dutenik. Haiekin biltzekotan, sari garrantzitsuren bat lortu eta gero argazkian ateratzeko izaten da.

Mojen misterioa eta Armendaritzen sekretuekin batera, misteriotik eta sekretutik asko duen bertze albiste garrantzitsu bat dugu egunotan: Urralburu eta Aragonen aurkako epaiketa. Bi agintariok ere ez zuten minuturik galtzen laguntza eske joaten ziren zinema zuzendariekin. Eraikuntza enpresetako buruekin bildu nahiago zuten azken horiek, dirurik ez eskatzeaz gain, diru pila emateko prest joaten zirelako.

Herenegun hasitako epaiketan argituko al dira horren guztiaren misterio eta sekretuak? Ezezkoan nago: pelikula honen gidotia oso korapilatsua da, ezagutzen ditugun pertsonaiak ere ez omen dira pelikulan parte hartu zuten guztiak eta, zorionez, Andoni Erburuk ez du zerikusirik epailearen aitzinean dauden protagonista nazkagarriekin.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** La Pamplonesa musika bandak kontzertua eskainiko du etzi, 12:30etan, Carlos III zinema aretoan.
- **Lizarrak:** Color Humano taldeak kontzertua eskainiko du bihar La Carpa kiroldegian, 23:00etan.
- **Irunberri:** Klaker, Ziztu Bizian eta Skalariak taldeek kontzertu-gaupasa eskainiko dute bihar, gauerdian hasita.

ANTZERKIA

- **Olatzagutia:** Pasadas las 4 taldeak Baby boom en el paraiso lana taularatuko du gaur udaletxeko ekitaldi aretoan, 22:00etan.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri elkarteak antolatutako zinemaldiko egitarauaren barruan, @Marius eta Jeannette eskainiko da gaur Golem zinematokian, 20:00etan. Sarrerak 450 pezeta balio du. Aurretik Razielen itzulera pantailaratuko da.
- **Iruñea:** Bideo emanaldia izanen da gaztetxean 20:00etan. *La siembra del progreso* eta *La lucha contra la autopista de Newbury* pelikulak eskainiko dira.
- **Tafalla:** Español zineman *Camino al paraiso* pelikula eskainiko da datorren asteartean eta ostegunean 20:00etan eta 22:30etan. Sarrerak 300 pezeta balio du.

ERAKUSKETAK

- **Zangoza:** Lucia Agirre Baztanen olioak ikusteko aukera dago udaletxean apirilaren 5a arte.
- **Iruñea:** Lekune galerian, Bro-toren lanak ikusteko parada dago heldu den apirilaren 18ra arte.

- **Iruñea:** Teresa Sabateren margolanak jarri dituzte Lacava kafetegian, datorren apirilaren 19ra bitartean.
- **Alzoain:** Sex Haizegoak arte erotikoa biltzen duen erakusketa zabaldu du Artsaia aretoan. Apirilaren 27a bitartean egonen da zabalik.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Haize zentraleri buruzko mahai-ingurua izanen da 20:00etan gaztetxean. EHN (Nafarroako Energia Hidroelektrikoa) enpresa, Gurelur

talde ekologista eta AHTren Aurkako Asanblada izanen dira solasean.


- **Mugairi:** Bertso afaria izanen da bihar. A.M. Peñagarikano eta A. Egaña ariko dira bertsoan.
- **Arantz:** Bertso afaria eginen da elkartearen bihar, 21:00etan. I. Murua, J. Sorozabal eta S. Lizaso ariko dira bertsoan.
- **Zuralde:** Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaurrea izanen da 16:30etan.
- **Iruñea:** Nafarroako Kirol Elkarateak bi mendi ibilaldi

antolatu ditu Aste Santurako. Biak apirilaren 9tik 14ra bitartean eginen dira. Batek Nafarroako Lizarraldetik Hondarribirako bidea eginen du. Besteak, berriz, Picos de Europan hasi eta Larriongo gainetik, Riañotik eta Eslako gainetik iraganez Leonen bukatuko du bidea. Informazio gehiago nahi duenak ondoko bi telefonotara dei dezake: 22 43 24 edo 22 98 20.

- **Irunberri:** Ikastolaren alde euskal karaokea eta jaialdia egingo dute bihar, 18:00etan.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Mailegu hipotekarioa eskatuko dute berandu baino lehen

MUSUBANK

Amodioarekin elkar hartuta lan eta lan